



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2022-03-03

BILERA ZENBAKIA: 3

ORDUA ETA LEKUA: 17:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Leire, Erkuden, Aiora (zinegotzia) Emma.

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

## Urteko plangintzaren antolaketa

Hilabetero zer egiten den aztertu ondoren honako plangintza geratu da.

### MARTXOA.

- Emakumeen eguna. Martxoak 8.

### APIRILA.

- Ongizateko bilera egongo da apirilak 5ean eta bertan Jabik , gimnasioaren inguruan duen informazioa ekarriko du. (materiala, aurrekontuak...).
- Bilera nagusiki gai horren inguruan egingo da.
- Apirilak 7 an osasunaren eguna da, Sarek preso gaixoak errebindikatzeko eguna bezala zehaztuta du.
- Apirilak 9an ekintza ezberdinak egitea planteatzen da, haur eta gazteei begira, Kulturako Nerearekin hitz egin behar da elkarlan bat egiteko.

### MAIATZA.

- Maiatzak 3 ongizateko bilera.
- Ekainea errefuxiatuen Gaia landu behar denez, aldizkarian honen inguruko elkarrizketaren bat egin eta hurrengo hilabeteko ekintzak azaldu.
- Bi hitzalde ematea planteatzen da.
- Esku hutsik elkartetik "Dolu perinatale".
- Ainara Gorostizu Ataundarraren "Amatasuna". Amatasun esperientzia bizigarriagoak sortu ahal izateko, amatasunak momentu bakoitzean dakarrenaz ere hitz egin behar dela iruditzen zaio Gorostitzuri. "Kontakizunak behar dira".

### EKAINA.

Hilabete honetan, ekainaren 20ean errefuxiatuen eguna ospatzen denez , garrantzitsua ikusten zen ekintza ezberdinak egitea honen inguruan.



- Ekainak 10 - herriaren hasieran dagoen panelean, gure herrian ematen diren hizkuntz ezberdinekin “ongi etorri” hitzak idaztea.
- Ekainak 15 - Harrera eguna. “Munduko arrozak” egitea posible den ikusteko, beraiekin elkarriketak izan eta tanteatu ea animatuko lirateken.
- Ekainak 20 - “Aita Mari” filma ikustea arratsaldeko 18:00 etan Kulturgunean.

#### UZTAILEAN.

- Uztailak 5 - Ongizate taldearen bilera. Ekaineko balorazioa egiteko.

#### ABUZTUA.

- Libre.

#### IRAILA.

- Irailak 6 ongizateko bilera.
- Harrera egunean jasotako datuekin, “Munduko arrozak” egitea planteatzen da, herriko festetan. Paella jana egiten denez, bat egin dezake eta beraien parte hartzea bultzatu.
- Sarek Donostian antolatu duen festara joateko, informazioa zabaldu eta jendea animatu.

#### URRIA

- Urriak 4 ongizateko bilera.
- Urriaren 7 - haurrekin eta gazteekin dinamikaren bat antolatzea pentsatu da Mikelek 50 urte beteko dituelako eta ondoren afari bat antolatuko da. Kulturako Nerearekin hitz egin behar da, elkarlana egiteko aukera badago eta beste ekintza batekin ez kointziditzeko.
- Sarek antolatutako festara joan. Urriak 8 an Sarek egin behar duen Donostiko festarako informazio zabaldu, ahal den herritar guztiak joan daitezen.
- Urriak 10an, gaixotasun mentalen eguna denez, ludopatiaren inguruko hitzaldia emango da Josu Vianarekin.

#### AZAROA.

- Azaroak 8 ongizateko bilera.
- Talo festarekin batera, ogi ezberdinen tailer bat antolatzea pentsatu daiteke. Hau, eskolan egin daiteke printzipioz eta ondoren egun honetan ere, prest badaude. Talo festaren eguna kulturakoekin ziurtatu behar da.

#### ABENDUA.

- Abenduak 13 ongizateko bilera.

ETXEKO- LANAK / ARDURAK

NOIZKO?

ZEINEK?



GIMNASIOAaren gaia landu	Apirilak 5	Jabi
Herriaren hasieran dagoen panelaren egoera nola dagoen eta gaizki egon ezker nola konpondu daiteken aztertzea, ekainean "Hizkuntza ezberdinen" panela egiteko.	Maiatzak 3	Jabi
Aldizkaria maiatzean aterako den galdetu, elkarrizketak eta ekaineko plangintza jarri ahal izateko.	Apirilak 5	Aiora
Aldizkarirako elkarrizketa ¿???	Maiatzak 3	¿?
Ekainaren 10eko penelan ekintzan, herriko haur-gazteek ere parte hartuko duten Nereari galdetu	Apirilak 5	Aiora
Jose Luisek galdetu, zenbat eta zein hizkuntza erabiltzen diren gure herrian, panelarena antolatzeke.	Maiatzak 3	Aiora
Urriak 10eko Ludopatiaren hitzaldia lotu.	Apirilak 5	Aiora
Ekainak 15eko Harrera Eguna	Ekainak 7	Erkuden
Amatasunaren inguruko bi hitzaldiak lotzen saiatuko da, maiatzerako.	Apirilak 5	Leire
Nagorekin hitz egin, galdetzeko ea aukera izango genukeen "Aita Mari" filma erosteko eta Nerearekin hitz egin, ekainak 8-an eman daiteken jakiteko.	Apirilak 5	Emma
<b>HURRENGO BILERA</b>		
Hurrengo bilera, 2022ko Apirilaren 5ean egingo dugu, astelehena 17:00tan Udaletxean.		
Gai Ordena:		
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Etxeko lanen errepassoa</li> <li>2. Gimnasioa</li> <li>3. Maiatzerako dauden lanen errepassoa</li> </ol>		